

BIZIAREN ETA MATERIAREN ZIENTZIEN IKERKETARAKO LAGUNTZAK. RAMÓN ARECES FUNDAZIOA 2018

Xedea

Ramón Areces Fundazioak iragartzen du laguntzak emango dituela gure gizarterako eta, laburbilduz, nazioarteko zientzialarien komunitaterako onuragarriak diren proiektu berriak bultzatzeko. Ramón Areces Fundazioaren oinarritzko helburua da Espainian ikerkuntza zientifiko eta teknikoa sustatzea, horko ikertzaileei prestakuntza ematea eta, oro har, hezkuntza zein kultura bultzatu eta garatzea.

Lehenetsitako ikerkuntza-arloak:

- Gaitz arraroak
- Doitasunezko medikuntza eta minbizia
- Septizemia: alerta goiztiarra, prebentzioa eta tratamendua.
- Alboko esklerosi amiotrofikoa (ELA) eta Esklerosi Anizkoitza (EM). Etiologia molekularra eta tratamendu berriak.
- Zelulen arteko elkarrizketa eta interactoma: ondorio patologikoak.
- Segurtasuna elikaduran eta bioteknologian
- Energia berriztagarria: materialak eta prozesuak
- Grafenoa, atomoak, clusterrak eta nanopartikula matalikoak. Oinarriak eta aplikazioak.
- Tenperatura altuetako material supereroaleak.

Pertsona ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:

- a. Eskaera aurkezten denetik eta proiektua exekutatzen den bitartean, UPV/EHUREkin funtzionario-, estatutu- edo kontratu-lotura izatea.
- b. Lehenetsiz, Doktore titulua izatea.

Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:

- a. Eskaera aurkezten denean, UPV/EHUREkin funtzionario-, estatutu- edo kontratu-lotura izatea.
- b. Lehenetsiz, Doktore titulua izatea.
- c. Beste unibertsitate, zentro edo erakunde batzuetako pertsona ikertzaileek jatorrizko entitatearen baimena izan behar dute eskaeran parte hartzeko.

ERNE: Laguntza ematen denean UPV/EHUREkin zuten lotura amaitzen duten ikertaldeko kideek ezingo dituzte gastuak inputatu egoera horrek jarraitzen duen bitartean. Pertsona Ikertzaile Nagusia izango da proiektuak iraun bitartean gertatzen diren bajak Ikerketa Arloko Errektoreordetzari jakinarazteko arduraduna.

Eskaerak aurkezteko epea:

2018ko maiatzaren 31 arte (barnean dela)

Bateraezintasunak

Deialdi honetara ezingo da aurkeztu azken lau urtean Ramón Areces Fundazioaren laguntzaren bat jasotzen ari den edo jaso duen ezein talde.

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

- Pertsona-gastuak: Proiektua aurrera eramateko, ikertzaile laguntzaile bat kontratatzea espero badu, Ikertzaile Nagusiak (PINek) eskaeran espresuki zehaztu behar du. Horrekin batera, behar horren justifikazioa gehitu behar du, baita kontratazioaren iraupen-epea eta lehiaketa publikoaren bitartez egingo dela dioen adierazpena.
- Inbentaria daitekeen materiala: Ez da onartuko gasturik bulegoaren amortizazio, altzari edo materialetarako.
- Bidaia eta dietak: Ezin dira izan 2.500 euro/urte baino gehiago.

Eskatutako guztizko zenbatekoa ezin da izan 160.000 eurotik gorakoa hiru urterako.

UPV/EHUn bitartez aurkeztutako eskaeretan, zeharkako kostuen % 5 sartu beharko dira aurrekontuan.

ERNE: 2008ko apirilaren 29ko Ebazpenak, UPV/EHUn Estatutuen 315. artikulua garapenerako araudia argitaratzeko agintzen duenak xedatutakoa aplikatuz, PINek **ez du nomina ordain-saririk jasoko deialdi honen bitartez**. Deialdiaren oinarriek berek esplizituki debekatzen dute horrelako ordain-saririk kobratzea.

UPV/EHUn eskaerak aurkezteko prozedura:

MUGAEGUNA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2018ko maiatzaren 23a	Pertsona ikertzaile nagusia	Proposatutako ikertaldea aztertua izateko, "I. eranskina" hona bidali: convocatorias.dgi@ehu.eus ,
2018ko maiatzaren 24a	Ikerketa Arloko Errektoreordetza	Taldearen azterketaren emaitza jakinarazi.
2018ko maiatzaren 28a Egun honetatik aurrera, ez da bermatuko legezko ordezkariaren abala behar duen dokumentazioa epe barruan bidaltzea.	Pertsona ikertzaile nagusia	Proiektuaren laburpena bidali, aurrekontua ere tartean. <u>Fase honetan, ez da beharrezkoa memoria zientifikoa bidaltzea.</u>
2018ko maiatzaren 29a	Ikerketa Arloko Errektoreordetza	Errektoreordeak sinatutako UPV/EHUn onarpen-dokumentua bidali.
2018ko maiatzaren 31etik aurrera	Pertsona ikertzaile nagusia	Eskaera osorik convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali, artxibatzeke.

ERNE: Pertsona ikertzaile nagusia da eskaera behar forman eta epean Interneteko aplikazioaren bitartez aurkezteko arduraduna.

Eskaerak aurkezteko jarraibideak:

Eskaera berriak jarritako **Interneteko inprimaki** batean egingo da, eta Fundazioaren web orrian egongo da eskueran. Eskaerari ondorengo dokumentuen PDF formatuko kopia erantsiko zaizkio:

- Ikertzaile Nagusiaren NAN fotokopia
- Proiektuaren laburpena

- Proiektua egiteko lantokia onartzen dela adierazten duen dokumentua **Dokumentu horretan, UPV/EHUko Ikerketa Arloko Errektoreordearen sinadura behar da.**
 - Ikerketaren memoria
 - Talde eskatzailearen kanpo-finantzaketaren zerrenda
 - Ikertzaile Nagusiaren Curriculum Vitaea
 - Informazio inprimakia: datuen babesa eta adostasuna.
- Ikerketa taldekide bakoitzeko bi dokumentu hauek erantsiko dira:
- Taldekidearen Curriculum Vitaea
 - Informazio inprimakia: datuen babesa eta adostasuna.

Eskaera betetzeko UPV/EHUren datuak:

Eskaera bete ahal izateko beharrezko UPV/EHU erakundearen datuak hauek dira:

- Legezko ordezkaria: Jose Luis Martín Gonzalez
- Arduraduna: Ikerketa Arloko Errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Sozietatearen helbidea: Sarriena auzoa, z/g
- Posta Kodea: 48940
- Hiria: Leioa
- Harremanetarako helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

UPV/EHUko kontaktua:

- Telefonoa: 94 601 80 08
- Faxe: 94 601 35 50
- Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

Ramón Areces Fundazioko kontaktua:

- Tel.: 91 515 89 80

Argibideak:

<https://fundacionareces.es/fundacionareces/portal.do?IDM=37&NM=1>